

“IKASLEEK TALDEKO LANAK KOORDINATU ETA ERANTZUKIZUN INDIBIDUALAK BEREN GAIN HARTZEN IKASTEN DUTE”



Amaia Urzelaia | Izpi Beltzak | Hernaniko BHI | Batxilergoa

Amaia Urzelai Hernani BHI Batxilergoa ikastetxe bereko bi talderen buru da. Eta bi taldeen artean lehiakortasuna izan dela aitortu arren, elkarri laguntzen diotela dio eta ez dela beharrezkoa izaten arbitraje lanak betetzea, motibazioa mantentzea baizik.

Zer moduz moldatu zarete wikia erabiltzen?

Oso ongi moldatu dira ikasleak. Wikia erabiltzea erraza egin zaie eta oso lagungarria suertatu zaie lana egiteko orduan

Ba al du zailtasun gehigarri eta ustekabekorik?

Erabilgarriagoa izango litzateke orrien barnean azpi-orriak egongo balira. Hala ere, ondo dagoela iruditu zaie.

Zer trebetasun berri eskatzen dizkie ikasleei?

Edukiak ongi egituratzea, taldekideen artean lana banatzea eta koordinatzea, bakoitzak bere ardurak hartzea, denbora ongi kudeatzea eta, noski, wikia bera erabiltzen ikastea (irudiak eta beste programa eta tresnekin egindako edukiak bertan txertatu...).

Zure ustez puntuazio-mailari eutsiko diozue Mito planetan?

Ahalegin guztiak egingo ditugu hala izateko.

Zuzentzen dituzun bi talde aurreneko hiruren artean daude: Ba al da lehiarik haien artean? Nola daramate?

Lehia bai dago. Hala ere, taldeak elkar laguntzen dira.

Taldeen arteko arbitraje-funtziorik egin behar al duzu?

Talde bakoitzak bere kasa funtzionatzen du. Bakoitzak bere antolaketa propioa du, lanaren erritmo eta antolaketa autonomoa dute. Nik bakoitzarekin, feed-back bidezko harremana ezartzen dut. Fase bakoitzaren misioa ezagutu ondoren beraiekin bildu eta zalantzak argitzen saiatzen naiz. Gero beraiek egin behar dute urratsak eta zerbait egin dutenean niri erakusten didate eta egindakoa eztabaidatzen dugu; beraiek feed-back hori jaso eta hurrengo urratsak egiten dituzte, prozesu hau errepikatuz. Badakite beste taldeak, ere, lanean ari direla eta horrek berak motibatzen die atzean ez gelditzera. Nire lana, arbitrajean baino gehiago, talde bakoitzaren motibazio gurpila biraka mantentzean datza.

[Hernani BHIkoen lana ikusi \["Izpi Beltzak"\]](#)